

**RATIO EKONOMIKO-FINANTZARIOEI BURUZKO
INFORMAZIOA 2015/12/17(e)(a)n**

**INFORMACIÓN SOBRE LOS RATIOS ECONÓMICO-
FINANCIEROS A 17/12/2015**



UDAL GASTUA, BIZTANLEKO GASTO MUNICIPAL POR HABITANTE


Zer neurtzen du? Udalak biztanleko gastatzen dituen euroak, gastu-azalpen guztietan (pertsonal-gastuak, funtzionamenduko kanpo-gastuak, inbertsioak...).

Kalkulatzeko formula Udal gastuaren ratioa biztanleko = Onartutako obligazio garbiak (€) / biztanle kopurua.

¿Qué mide? Los euros que el Ayuntamiento gasta por habitante por todos los conceptos de gasto (gastos de personal, gastos externos de funcionamiento, inversiones ...).

Fórmula de cálculo Ratio de gasto municipal por habitante = Obligaciones reconocidas netas (€) / nº de habitantes.

ADIERAZLEAREN AZKEN BILAKAERA EVOLUCIÓN RECIENTE DEL INDICADOR



SARRERA FISKALAK, BIZTANLEKO INGRESOS FISCALES POR HABITANTE


Zer neurtzen du? Udalak biztanleko biltzea lortzen dituen euroak, udal sarrera fiskalen bidez (zuzenean biltzen direnak zein modu delegatuan biltzen direnak, udal zergak biltzea delegaturik baldin badago). Kontuan izan behar da, zergez gain, garrantzizko beste sarrera-azalpen batzuk egoten direla, goragoko maila bateko administrazioetatik jasotzen diren transferentziak bereziki.

Kalkulatzeko formula Sarrera fiskalen ratioa biztanleko = Onartutako zerga eskubide garbiak (Sarreraren 1. kapitulutik 3.era bitartean) (€) / biztanle kopurua.

¿Qué mide? Los euros que el Ayuntamiento consigue recaudar por habitante vía ingresos fiscales de carácter municipal (bien sean recaudados directamente o por delegación, si la recaudación de tributos de carácter municipal se encuentra delegada). Hay que tener en cuenta que, además de los impuestos, suele haber otros conceptos importantes de ingresos, especialmente las transferencias recibidas de administraciones de rango superior.

Fórmula de cálculo Ratio de ingresos fiscales por habitante = Derechos reconocidos netos tributarios (capítulos 1 al 3 de ingresos) (€) / nº de habitantes.

ADIERAZLEAREN AZKEN BILAKAERA EVOLUCIÓN RECIENTE DEL INDICADOR



INBERTSIOA, BIZTANLEKO INVERSION POR HABITANTE


Zer neurtzen du? Udalak biztanleko udalerrian egidako inbertsioak finantzatzeko erabiltzen dituen euroak.

Kalkulatzeko formula Inbertsioen ratioa biztanleko = Gastuaren 6. eta 7. kapituluetan onartutako obligazio garbiak (€) / biztanle kopurua.

¿Qué mide? Los euros que el Ayuntamiento destina por habitante a financiar inversiones en el municipio.

Fórmula de cálculo Ratio de inversiones por habitante = Obligaciones reconocidas netas en los Capítulos 6 y 7 de gasto (€) / nº de habitantes.

ADIERAZLEAREN AZKEN BILAKAERA EVOLUCIÓN RECIENTE DEL INDICADOR



SUPERABITA/DEFIZITA, BIZTANLEKO SUPERÁVIT/DÉFICIT POR HABITANTE

FALTA OBTENER LOS DATOS PARA EL GRAFICO

Zer neurtzen du? Ekitaldi batean, udal aurrekontua gauzatzean biztanleko gertatzen den superabita (sarrera gehiago, gastuak baino) edo defizita (gastu gehiago, sarrerak baino).

Kalkulatzeko formula Superabitaren/defizitaren ratioa biztanleko = Aurrekontu emaitza doitu (€) / biztanle kopurua.


OHARRA: Positiboa bada, superabita adierazten du (sarrera gehiago, gastuak baino). Negatiboa bada, defizita adierazten du (gastu gehiago, sarrerak baino).

¿Qué mide? El superávit (mayores ingresos que gastos) o déficit (mayores gastos que ingresos) que se genera por habitante al ejecutarse el presupuesto municipal.

Fórmula de cálculo Ratio del superávit/déficit por habitante = Resultado presupuestario ajustado / nº de habitantes .

NOTA: Si es positivo, indica superávit (mayores ingresos que gastos). Si es negativo, indica déficit (mayores gastos que ingresos).

ADIERAZLEAREN AZKEN BILAKAERA EVOLUCIÓN RECIENTE DEL INDICADOR



AUTONOMIA FISKALA AUTONOMÍA FISCAL

Zer neurtzen du? Udalak gastuak sarrera propioekin finantzatzeko duen ahalmena, kanpotiko beste sarrera batzuen mende egon gabe, halakoan gainean erabakitzeko ahalmenik ez du eta.

Kalkulatzeko formula $\text{Autonomia fiskalaren ratioa} = \frac{\text{Onartutako zerga eskubide garbiak (sarreraren 1. kapitulutik 3.era bitartean) (€)}}{\text{Onartutako eskubide garbiak, guztira (€)}}$


OHARRA: Ratioa ehunekoetan adierazten da (%). Hala, %100 balitz, “erabateko autonomia” adieraziko luke (Udalak bere sarreraren mende baino ez dago), eta %0 balitz, “autonomiarik eza” adieraziko luke (Udala kanpotiko sarreraren mende dago erabat bere gastuak finantzatzeko).

¿Qué mide? La capacidad que tiene el Ayuntamiento de poder financiar sus gastos con ingresos propios sin depender de otros ingresos externos sobre lo que no tiene capacidad de decisión.

Fórmula de cálculo $\text{Ratio de autonomía fiscal} = \frac{\text{Derecho reconocidos netos tributarios (capítulos 1 a 3 de ingresos) (€)}}{\text{Derechos reconocidos netos totales (€)}}$

NOTA: El ratio se expresa en %. Un 100% expresaría “total autonomía” (el Ayuntamiento depende exclusivamente de sus propios ingresos) y un 0% expresaría “nula autonomía” (el Ayuntamiento depende por completo de ingresos externos para

ADIERAZLEAREN AZKEN BILAKAERA EVOLUCIÓN RECIENTE DEL INDICADOR



ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA PERÍODO MEDIO DE PAGO

Zer neurtzen du? --> Epealdi batean udalek eta horien mendeko entitateek beren hornitzaileei zein epetan ordaintzen dieten, batez beste.

Kalkulatzeko formula: --> Ordaindutako fakturen OBBEa zehazteko, faktura jaso den egunetik ordaindu arte igarotako egun kopurua kalkulatzen da, eta emaitza horri 30 egun kentzen zaizkio. Ordaindu gabeko fakturen OBBEa zehazteko, faktura jaso den egunetik epealdiaren azken egunera arte igarotako egun kopurua kalkulatzen da, eta emaitza horri 30 egun kentzen zaizkio. Argitaratzen den datua hau da: ordaindutako fakturen eta ordaindu gabeko fakturen batez besteko OBBEa.


OHARRA: OBBEa negatiboa izateak bitako bat adierazten du: fakturak, batez beste, azkarrago ordaindu direla legeak haiek onartzeko orokorrean aurreikusten duen gehieneko epea baino, edota ordaindu gabe dauden eragiketak, batez beste, gehieneko epe horren aurreko uneren batean daudela. Ordainketak, batez beste, legezko epe barruan eginak izateko, OBBEak ez du 30 egunekoa baino handiagoa izan behar.

¿Qué mide? --> El plazo medio de pago a los proveedores (PMP) de los ayuntamientos y sus entes dependientes, en promedio, en un periodo determinado.

Fórmula de cálculo: --> Para determinar el PMP de las facturas pagadas, se calcula la diferencia en días entre la fecha de recepción de la factura y la fecha del pago, y se minora el resultado en 30 días. Para determinar el PMP de las facturas pendientes de pago, se calcula la diferencia en días entre la fecha de recepción de la factura y el último día del periodo considerado, y se minora el resultado en 30 días. El dato publicado es la media de los PMP de las facturas pagadas y las facturas pendientes de pago.

NOTA: El hecho de resultar un PMP negativo indica o bien una mayor celeridad, en término medio, en el pago en relación al periodo máximo previsto legalmente con carácter general para dar conformidad a las facturas, o bien que las operaciones pendientes de pago se encuentran, en término medio, en un momento anterior a dicho periodo máximo. Se considera que las facturas, en promedio, se abonan dentro del plazo legal siempre que el PMP no supere los 30

ADIERAZLEAREN AZKEN BILAKAERA (egun kopurua) EVOLUCIÓN RECIENTE DEL INDICADOR (nº de días)



KOBRAZKEKO BATEZ BESTEKO EPEA PERÍODO MEDIO DE COBRO

Zer neurtzen du? Udalari zor diotena emateko, zordunek, batez beste, hartzen dituzten egunen kopurua.

Kalkulatzeko formula Kobratzeko batez besteko epea = Sareren 1. kapitulutik 3.era bitartean kobratzeko dauden eskubideak (€) x 365 egun / Sareren 1. kapitulutik 3.era bitartean onartutako eskubide garbiak (€).


OHARRA: Adierazlea egunetan ematen da. Zenbat eta egun gehiago, luzeagoa da Udalarentzat kobratzeko epea.

¿Qué mide? El número de días que por promedio tarda en Ayuntamiento en cobrar lo que sus deudores le adeudan.

Fórmula de cálculo Período medio de cobro = Derechos pendientes de cobro en los Capítulos 1 al 3 de ingresos (€) x 365 días / Derechos reconocidos netos en los Capítulos 1 al 3 de ingresos (€).

NOTA: El indicador se expresa en días. A mayor número de días, más tarda el Ayuntamiento en cobrar.

ADIERAZLEAREN AZKEN BILAKAERA (egun kopurua)



AZPIEGITURETAN EGINDAKO ZUZENEKO INBERTSIOA, BIZTANLEKO INVERSIÓN DIRECTA EN INFRAESTRUCTURAS POR HABITANTE


Zer neurtzen du? Udalak biztanleko azpiegituretan egindako inbertsioak finantzatzeko erabiltzen dituen euroak.

Kalkulatzeko formula Azpiegituretan egindako zuzeneko inbertsioaren ratioa biztanleko = Gastuen 6. kapituluan onartutako obligazioak (€) / biztanle kopurua.

¿Qué mide? Los euros que el Ayuntamiento destina por habitante a financiar inversiones en infraestructuras.

Fórmula de cálculo Ratio de inversión directa en infraestructuras por habitante = Obligaciones reconocidas en el Capítulo 6 de gastos (€) / nº de habitantes.

ADIERAZLEAREN AZKEN BILAKAERA EVOLUCIÓN RECIENTE DEL INDICADOR



HIRIGINTZATIK DATOZEN SARREREN %, SARREREN AURREKONTU GUZTIAREN ALDE % DE INGRESOS DERIVADOS DEL URBANISMO SOBRE EL PRESUPUESTO TOTAL DE INGRESOS

Zer neurtzen du? Hirigintzatik datozen sarrerek Udalaren sarrera guztien artean duten partaidetza-maila.

Kalkulatzeko formula Hirigintzatik datozen sarreren ehunekoaren ratioa, sarreren aurrekontu guztiaren aldean = Hirigintza lizentzietan, obra lizentzietan, hirigintzako txosten, plano eta ziurtagirien tasetan, urbanizazio kostuetan, birzatiketetan, hirigintza-kargetan eta hirigintzako aprobetxamenduen lagapenean onartutako eskubideak (€) / Sarreren 1. kapitulutik 9.era bitartean onartutako eskubideak (€).


OHARRA: Ratioa ehunekoetan adierazten da (%). Hala, %100 balitz, horrek adieraziko luke Udalaren sarrera guztiak hirigintzatik datozela; eta %0 balitz, ordea, jatorri horretako batere sarrerarik ez dagoela adieraziko luke.

¿Qué mide? El grado de participación de los ingresos derivados del urbanismo en el total de ingresos del Ayuntamiento.

Fórmula de cálculo Ratio de porcentaje de ingresos derivados del urbanismo sobre el presupuesto total de ingresos = Derechos reconocidos en licencias urbanísticas y de obras, tasas de informes, planos y certificados urbanísticos, costos de urbanización, reparcelaciones, cargas urbanísticas y cesión de aprovechamientos urbanísticos (€) / Derechos reconocidos en los Capítulos 1 a 9 de ingresos (€).

NOTA: El ratio se expresa en %. Un 100% expresaría que todos los

ADIERAZLEAREN AZKEN BILAKAERA EVOLUCIÓN RECIENTE DEL INDICADOR



HIRIGINTZATIK DATOZEN GASTUEN %, GASTUEN AURREKONTU GUZTIAREN ALDEAN % DE GASTOS DERIVADOS DEL URBANISMO SOBRE EL PRESUPUESTO TOTAL DE GASTOS

Zer neurtzen du? Hirigintzatik datozen gastuek Udalaren gastu guztien artean duten partaidetza-maila.

Kalkulatzeko formula Hirigintzatik datozen gastuen ehunekoaren ratioa, gastuen aurrekontu guztiaren aldean = "Hirigintza" programaren taldean onartutako obligazioak (€) / Gastuen 1. kapitulutik 9.era bitartean onartutako obligazioak (€).

OHARRA: Ratioa ehunekoetan adierazten da (%). Hala, %100 balitz, horrek adieraziko luke Udalaren gastu eta inbertsio guztiak hirigintzarako erabiltzen direla; eta %0 balitz, ordea, helburu horretarako batere gastu edo inbertsiorik ez dela erabiltzen adieraziko luke.

¿Qué mide? El grado de participación de los gastos derivados del urbanismo en el total de gastos del Ayuntamiento.

Fórmula de cálculo Ratio de porcentaje de gastos derivados del urbanismo sobre el presupuesto total de gastos = Obligaciones reconocidas en el grupo de programa "Urbanismo" (€) / Obligaciones reconocidas en los Capítulos 1 a 9 de gastos (€).

NOTA: El ratio se expresa en %. Un 100% expresaría que todos los gastos e inversiones del Ayuntamiento se destinan al urbanismo y un 0% expresaría que ningún gasto o inversión tiene este destino.

ADIERAZLEAREN AZKEN BILAKAERA EVOLUCIÓN RECIENTE DEL INDICADOR

